

Irailaren 16tik 22ra mugikortasun astea ospatuko da Mondragon Unibertsitatean

2014/09/12

Irailaren 16tik 22ra bitartean europako mugikortasun astea ospatuko da eta Mondragun Unibertsitateak ere bat egin nahi izan du aste honekin. Helburua egunerokoan erabiltzen dugun garraio bidearen inguruan hausnarketa egitea da eta jasangarritasunaren inguruko kontzientzia zabaltzea.

Horretarako hainbat ekintza antolatu dira MUko hainbat campusetan. Alde batetik, **dohaineko patinaia ikastaroak** eskainiko dira Arrasate eta Oñatin. Beste aldetik, aste osoan zehar **zure fakultatera desplazatzeko dituzun aukera jasangarriak** bidaltzeko deia egiten dugu eta bidalitako guztien artean zozketa bat egingo dugu. kirolak@mondragon.edu helbidean jasoko ditugu zuen proposamenak. Beste hainbat ekintza ere burutuko dira aste honen baitan.

Azkenik, MU-ko campusak kokatuta dauden udalerriek ere hainbat ekintza antolatuko dituzte.

- Arrasateko mugikortasun astea
- Eskoriatzako mugikortasun astea
- Donostiako mugikortasun astea

Hemen aurkituko duzue mugikortasun astean ikasle eta langileek Huheziko fakultatera joan-etorriak egiteko erabili duten garraio bideak.




IRAILAREN 16TIK 22RA **DEL 16 AL 22 DE SEPTIEMBRE**

- + PATINAIA IKASTAROAK DOAN
Irailak 16 eta 18 Arrasaten 18:30tan
Irailak 17 eta 22 Oñatin 18:30tan
- + CURSO DE PATINAJE GRATIS
16 y 18 de septiembre Arrasate 18:30
17 y 22 de septiembre Oñati 18:30
- + DESPLAZAMENDU JASANGARRI PROPOSAMENAK
-Zelan mugitu gaitzke zure campus ineuruetan? zure desplazamendu jasangarriak bidali diezaiuzu.
- + PROPUESTA DE DESPLAZAMIENTOS SOSTENIBLES
-¿Como te desplazas por tu campus? propon desplazamientos sostenibles.

Informazioa www.mondragon.edu/eu/kirol-zerbitzua Más información en www.mondragon.edu/es/kirol-zerbitzua